

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERAKUNDEARTEKO
BATZORDEA**

2022ko IRAILAREN 28ko EZOHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

Jose Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea eta Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidentea (birtuala)

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria (presentziala)

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz (presentziala)

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz (presentziala)

Fernando San Martín andrea, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz (birtuala)

Juan Manuel Balerdi, Euskal Fondoa ordezkatzuz (presentziala)

Noemí de la Fuente andrea, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe (presentziala)

Gainera, presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe:

Miguel Pérez, Bilboko Udala ordezkatzuz (birtuala)

Silvia Carballo andrea, Donostiako Udala ordezkatzuz (birtuala)

Ana Telleria, eLankidetzako teknikaria (presentziala)

Ainara Arrieta andrea, eLankidetzako teknikaria (presentziala)

Ezin etorria adierazi dutenak:

Aitor Gabilondo, Gasteizko Udala ordezkatzuz

Ernesto Sainz jauna, Eudel ordezkatzuz.

Kokalekua:

Mistoa: eLankidetzaren egoitza - Zoom

Eguna eta ordua: 2022ko irailaren 28a, 10:30 h.

2022ko irailaren 28ko 10:30ean, Erakundearteko Batzordeko presidente José Antonio Rodríguez jaunak bilerari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

1. Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeak Lankidetzaren eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen Aurreproiektuari egindako alegazio-txostena onartzea.

Presidenteak hasteko gogorarazi du Lege-aurreproiektuaren alde aurreko onarpen-agindua eman zuela sailburuak maiatzaren 10ean.

- Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidean: hainbat erakunde sozial eta herritar erakunderen 20 alegazio (6 errepikatuak)
- Parte hartzeko, eta beste sail eta administrazio batzuei kontsulta egiteko izapidean: 17 txosten (Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako hainbat sailtako txostenak haien artean), txosten horietatik 5 nahitaezkoak zirelarik (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarena haien artean). Bikura honetan onartua izateko aztertzen ari garen txostena gehituko litzaien txosten horiei.

Hurrengo pausoa egokitzen jotzen diren alegazioak lege-aurreproiektuaren testuan sartzea eta baiesten ez direnak memoria laburrean justifikatzea izango dela adierazi du. Izan ere, aurreproiektuaren bertsio berri hori Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordeari eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari bidaliko zaie, aztertu eta nahitaezko txostena eman dezaten.

Ondoren, informazioa eman beharko diote, halaber, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Aholku Batzorde Juridikoari. Azkenik, Legebiltzarrerara bidaliko da, Gobernu Kontseiluak onartu ondoren.

Noemi de la Fuentek gogorarazi du Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeak, 2022ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, artikuluz artikulatu landu zuela arauaren edukia, eta zenbait alegazio eta ohar egin zizkietela aurkeztutako testuari. Hori horrela, egokitzen jozen Garapenerako Lankidetzarako Erakundearteko Batzordeari txosten hori egin zezala eskatzea.

Noemik argitu du titularrek eta ordezkoez soilik bozkatu behar dutela –hau da, presidenteak, erakundearteko zuzendariak, eta hiru Foru Aldundietako eta Euskal Fondoko ordezkariak–, eta gonbidatuek hitza dutela, baina botorik ez.

Bozkatu egin da eta aho batez onartu da txostena.



NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA**

JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA**